

IDAZLAN LABURRA

- Proposatzen diren bi gaietatik **bat** aukeratu behar duzu.
- Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 150** hitzekoa izanen da.
- Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu «Gaia», «Egitekoa» eta, batez ere, «Nahitaez eman behar duzun informazioa» izeneko atalei. Labur eta argi adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe.
- Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.

Idazlan laburra : *Autobus linea bat kendu behar dute*

Gaia:

Zuk egunero erabiltzen duzun autobus linea kendu behar dute.

Egitekoa:

Idatz iezaiozu eskutitz autobus lineako arduradunari zure haserrea adierazteko.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ☞ Autobusaren ibilbidea zein den esan.
- ☞ Zure eta zure ingurukoen arrazoiak eta iritzia adierazi eta azalpenak eskatu.
- ☞ Konponbideak proposatu / eskatu.



2011ko maiatzak 7, Iruñea

Jaun/Andre agurgarri hori,

Duela egun pare batzuk jakin *izan dut hamazazpigarren zenbakiaren autobus linearen ibilbidea *baliogabetuko dela.

Hartutako erabakiaren zergatiak eskatzeko idazten dut eskutitz hau auzokide guztion partez.

Autobus linea honek *biltzen duen ibilbidean, Artika Berriko, Mutilbako, Buztintxuriko... auzoak *aurkitzen dira, hau da, *alde zaharretik edota gainerako auzoetatik nahiko *hurrun dauden auzoak eta gure ustetan linea egoki eta duin bat merezi dutenak.

Zerbitzu honen *erabiltzaileak betidanik izan ditugu arazoak (maiztasunez pasatzen ez delako, gaueko zerbitzurik ez duelako, ibilbidea zabalagoa eta geldigune gehiagorekin izan behar litzatekeelako...) eta nahiko nekatuta gaude egoerarekin.

Kexa honekin lortu nahi duguna ez da soilik ibilbide berria ere *baliotzea, baizik eta mobilizatzeko erraztasun gehiago ere lortzea. Hala nola, gaueko zerbitzu bat abiaraztea (gaueko zerbitzurik ez baitugu) gainontzeko auzo guztiek duten bezala.

Eguneko zerbitzua kaxkarra bada, gauekoari buruz ezin dugu hitzik esan ere.

Lehen esan bezala, nahiko nekatuta *geuden autobus linearen zerbitzu kaxkarrarekin eta merezi dugun tratua eskatu nahi dugu, gu ere gainontzeko auzoak bezalakoak baikara eta eskubide berdinak baititugu.

Beraz, besterik gabe, auzokideen eskaera kontutan izatea espero dut.

Adeitasunez,

Irati

Ez gai

Kalifikazioaren zergatia

Egitekoa: ez du ongi bete, gaiari oso modu nahasian heldu diolako, eta ez duelako eskatutakoa egin.

Egokitasuna: sarrera eta agurra ez ditu ongi egokitu. Erregistro egokia erabili badu ere, ez zaio helburuari lotu eta ez du hizkuntza eraginkortasunez baliatu. Ez zaio ongi egokitu hartzaileari.

Diskurtsoaren antolaketa: testua ez da koherentea, egileak informazioa ez baitu argi eta zehatz adierazi. Ez dago ongi egituratua; alde batetik, paragrafoak behar bezala antolatuz ez daudelako; eta, bestetik, ideien garapena nahasia delako. Gutunaren hasieran adierazitako helburuak ez du loturarik ondoren egin dituen eskaerekin. Gainera, bere eskaera arrazoitzeko eman dituen argudioak eskasak eta nahasiak dira. Puntuazioa: koma batzuk falta dira.

Aberastasuna: lexikoa desegokia eta oso mugatua du: *baliogabetuko -desagertuko, kentzea erabaki...-, *biltzen duen -duen-, *baliotu -baliagarri izatea-. Kalkoren bat ere egin du: *Buztintxuriko... auzoak aurkitzen dira - Buztintxuri... auzoak daude-...

Zuzentasuna: ez du akats gramatikal asko egin (*jakin izan dut -jakin nuen-, *erabiltzaileak -erabiltzaileek-, *geuden -geunden-..., baina hiztegiaren kontrol mugatua du eta egitura sintaktikoetan kalkoak antzematen zaizkio. Akats ortografikoren bat ere egin du: *alde zaharretik - Alde zaharretik-, *hurrun -urrun-. Maila honetan zuzentasun gramatikal handia erakutsi behar da, eta ez du lortu.

Carmen Ros Perez
Iruñerriako Eskualdeko Hiri Garraioko Zuzendaria

Zuzendari hori:

Nik, Aitziber Salaberria Euguik, 72810214-V NAN duenak eta Burlatan, kale Nagusian 4, 2-A pisuan, bizi naizen honek, 4. zenbakia duen autobus linea kentzeko hartu duzun erabakiarekin ez nagoela batere konforme adierazteko idazten dizut.

Autobus linea hori Iruñerrian ibiltzen den garrantzitsuenetariko bat da; alde batetik, Atarrabian edo Huarten hasi eta Barañainen bukatzen delako, beraz, Iruñerria osoa zeharkatzen duelako, eta beste aldetik, Ospitaleen zonaldera ailegatzen den linea bakarra delako.

Nik neuk, esate baterako, Iruñeko Merindadeen plazan lan egiten dut eta laneko ordutegia dela eta, egunero lau alditan hartu behar izaten dut autobus linea hori. Gainera, lan egiten dugunoz gain, gazte asko ere mugitzen dira autobus linea horrekin klasera joateko; hala nola, Salesianos, Escolapios... ikastetxeetako ikasleak.

Nola mugituko gara hemendik aurrera autobus linea hori kentzen baduzue? Egunero kotxea hartu, eta egun osorako zonalde urdina ordaintzera behartuta gaude? Ez dakit zeintzuk izango diren arrazoiak, baina guztion onerako irtenbide on bat bilatzea espero dut; adibidez, Atarrabiatik edo Huartetik Iruñera doan linea bat ateratzea eta Barañainetik Iruñera doan beste linea ezberdin bat ateratzea. Horrela, ibilbidea motzagoa izango litzateke.

Honekin guztiarekin, nire desadostasuna argi geratu dela uste dut eta egunkarian arrazoiak ematen dituen idazki bat publikatzea eskatzen dut, jende guztiak jakin dezan.

Besterik gabe eta erantzun baten esperoan, agurtzen zaitut.

Burlatan, 2011ko maiatzaren 7an
Aitziber Salaberria Euguik

Gai

Kalifikazioaren zergatia

Egitekoa: eskatutakoa ongi bete du, eta gaiari oso modu egokian lotu zaio.

Egokitasuna: idazki mota honek eskatzen duen erregistro neutro-formalean jardun du, eta hartzaileari ongi egokitu zaio. Gutunaren hasiera formal samarra bada ere, eskabideak egiteko formula erabili baitu, oro har erregistro egokia baliatu du.

Diskurtsoaren antolaketa: testua argia da eta jarraipen onekoa. Informazioa modu koherentean eman du. Hala ere, paragrafoen banaketa hobeki egin zezakeen; esaterako, bigarren eta hirugarren paragrafoak bakar batean bil zitzakeen, eta laugarrenean, berriz, jarraian adierazi ditu bere haserrea eta arazoa konpontzeko proposamena. Kohesio-mekanismoak nahiko egokiak dira.

Aberastasuna: lexiko zehatza eta egokia erabili du. Hala ere, laugarren paragrafoan kalko batzuk egin ditu: *zeintzuk izango diren arrazoiak -zeintzuk ote diren-, *beste linea ezberdin bat -beste linea bat, *erantzun baten esperoan -erantzunaren zain-...

Zuzentasuna: zuzen jardun du, eta baliabide morfosintaktikoen kontrola erakutsi du.

Iñigo Agirre Urrutia
Burundesako arduraduna
Gerezpea kalea, 7
31195 Ainzoin

Jaun agurgarri hori:

Burundesa enpresak Iturmenditik Olaztira doan autobus linea kendu behar duela eta, nira kexa adierazteko idazten dizut.

Linea horren erabiltzailea naizen aldetik, izan ere egunero lanera joateko erabiltzen dut, behar-beharrezkoa dut zerbitzu hori.

Bestalde, Sakanan zehar garraio publikoa erabiliz mugitu ahal izateko aukerarik gabe hainbeste denbora igaro ondoren, penagarria litzateke, behin jarri eta gero, berehala lineak murrizten hastea. Kontuan hartu behar da, oraintsu arte, Sakanan ez dugula garraio publikoa erabiltzeko ohiturarik izan, eta horrelako aldaketek bere denbora behar dutela.

Halaber, ulertzen dut enpresak etekinak ateratzea duela helburu, baina zerbitzuak murriztuz ezin izango da erabiltzaileen kopurua igo; aitzitik, zerbitzu kaxkarra eta ordutegi eskasak eskaintzen direla ikusita, nork bere autoa erabiltzera joko du, zalantzarik gabe.

Beharbada, enpresak publizitate gehiago egin beharko luke. Era berean, zerbitzu bereziak eta eskaintza erakargarriak egitea ere ez litzateke ideia txarra izango; esaterako, gazte eta adinekoendako beherapenak edo egun berezietan zerbitzu eskaintza zabalagoa. Hasieran, horiek guztiek diru sarrera handirik eman ez arren, epe luzera erabiltzaile kopurua bermatuko lukete.

Beraz, linea horrek oraindik erabiltzaile gutxi baditu ere, herri txikiak Burundesaren ibilbideetatik kanpo ez uztea eskatzen dizut, bai nire izenean, baita Sakanako herri txikienetako beste hainbat biztanlerenean ere.

Nire kezka eta proposamenak aintzat hartuko dituzulakoan, begirunez, agurtzen zaitut.

Irene Bengoetxea Irigoien

Iturmendi, 2011ko irailaren 26a

Ongi

Kalifikazioaren zergatia

Egitekoa: oso ongi bete du. Gaiari ongi heldu dio eta eskatutako hitz kopurua bete du.

Egokitasuna: helburuari estu lotu zaio. Hizkuntza eraginkortasunez erabili du. Erregistro egokia baliatu du, neutroa, alegia. Egoera eta hartzailea oso kontuan hartu ditu eta tonu egokiaz idatzi dio. Hartzailearen datuak gutunaren hasieran, goiko aldean eta eskuinaldean, hau da, behar den tokian, jarri ditu.

Diskurtsoaren antolaketa: testu argia da, ongi egituratua eta kohesionatua. Oro har, paragrafoak ongi antolatu ditu; hala ere, lehenengo bi paragrafoak bakar batean bil zitezkeen. Ongi azaldu ditu bere kexaren arrazoiak eta arazoa konpontzeko har litezkeen erabakiak; argudio eta adibide egokiak eman ditu bere ikuspegiari eusteko. Testu-antolatzaileak, lokailuak eta puntuazio-markak ongi baliatu ditu.

Aberastasuna: lexiko zabal, zehatz eta egokiaz baliatu da.

Zuzentasuna: zuzentasun gramatikal handiz jardun du. Baliabide morfo-sintaktiko guztien kontrol handia erakutsi du.

IDAZLAN LABURRA

